



A N D E K A .

LEYENDA SEÑALADA CON ACCESIT EN LOS JUEGOS FLORALES DE
SAN SEBASTIAN DE 1883.

(*Nere Ama maiteari.*)

«Euskaldúnak: gogor, gogor Mairúai.»

Illunabarra zan. Iturriche baten aurrean arkitzen nitzan, Euskal-Erri laztana samindurik daukaten gaitzetan pensatzen. Iruditzen zitzaidan arkaitzetik erortzen ziran ur tantoak, gure lur maiteak miñaren miñez bigundurik isurtzen zituan negar malkoak zirala. Añ tinkea¹ zan nere pentsamentua, ezik, eguzkiya sartu eta gabaren itzalak zabaldu ziran, ni oroitu gabe; eta bidea galdu ta, non negoen ez nekiela, baso tartean gelditu nitzan. Orduan chapela erantzirik, asi nitzan biyotz-biyotzez otoitz egiten esanaz: ¡O Jaungoikoa! atera nazazu ¡atera! illuntasun ontatik. Itz oek esatearekin batean, argicho bat ikusi nuen basoaren goenean, eta bera ikusteak, itsastarrari artizarrak² ematen dion poza eman ziran. Pentsatu nuen chabolen bateko argiya izango zala, eta aldapan gora igo nitzan. Irichi nitzanean argi ura zegoen tokira baserrieche bat arkitu nuen, eta gabonak emanik, atariyan ikusi nuen gizonari, esan nion: «Bidea galdurik nago echera joateko; eta gaur gabeko ostatua nai nuke.» Au aditurik, gizon prestu ark sukaldera sar erazi ninduan.

Sukaldean topatu nituen gizon aren emaztea, aurrak eta mira-beak, bai ta ere ausoko baserriyetako gizon ta emakumeak. Gizonak, batzuek lanean ari ziran, besteak, egunaz lanean nekaturik, atsedeten zeuden; emakumeak, guztiyak ari ziran iruten. Echekojauna, nere ondoren sukaldean sartu eta sutondoan, zizellu baten

(1) Firme.—(2) Estrella del Norte,

eseri zan Billera artan zeuden gizon ta emakume danak, asi ziztaiozkan esaten, eseri zanean: «Echeko-jauna, gure antziñako asaba euskaldunen kondaira bat, esan zaguzu.»—Echeko-jaunak erantzun zien; «Bai; Euskal-arrazak aztu ez ditzan bere aurrekoen azaña aundiyak, nere aitonari, aurchoa nitzala, aditutako kondaira bat esango dizutet.» Guztiyak prestatu ziran kondaira ura oarrez ta artezaz entzutera, eta Echeko-jaunak esan zuen: «Ara kondaira, gure asabak *esan oi zuten eran esana*:

I.

Zazpireun eta, amaikagarren urtea zan. Euskal-Erria irtuzietan¹ berezituri zegoen. Bizkaiko irtuzietan, Andeka deitzen zan gizon prestu biotz aundiko bat zan buruzari. Bi edo iru eunki baziran, Euskaldunak, Españaiko nagusi ziran Godoen kontra gerran ari zirala. Ezin bukatu zan gerra gogos ura, zergatik, baldin Euskaldunak garaituak izaten baziran noiz edo noiz, zelai-landetara jachitzen ziranean, etzan munduan beren mendi goyetan aek azpiratuko zituen indarrrik.

Len esan dan zazpireun eta amaikagarren urtean, Godoen Errege Errodrigo, martizti-samalda aundiakin, etorri zan Iruñara Euskal-Erriaren nagusi eta jabe egiteko ustean. Napar azkarrak prestatu ziran beren jayotz-eche eta mendiak gordezkeratzeko; eta besoan azkona jasotzeko gai ziran guztiyak, Andiatik, Urbasa-tik eta Aralar-tik, ala Bidasoaren ertzetatik, nola Aragoa-renetatik² etorri ziran Iruña-inguruetako mendi eta ibarretarra.

Baña ¡ona non! Iruñan dagoala artzen du Errodrigo-k, mairuak Españaiko oztugartean³ sartu diran berriya; eta sarritan gizonen uste zoroakin gertatzen dan bezela, desegiten dira bere irabazkiduste⁴ guziyak, illargi zillarrez tua Zeruan azaltzean, lañoak desegiten diran moduan: eta irtetzen da Iruñatik, eta Euskal-Erritik, diauta⁵ danak berarekin daramazkiela. Mendiz-mendi, aizeak egaan eraman-go balu bezela, iristen dá berri au Andekaren belarrietara; eta deiturik batzarrera Bizkaiko aiton buruzuri guziyai, esaten die:.

«Nere erritar maiteak: Iruñara etorri zan gure etsayen errege Errodrigo, joan da Euskal-Erritik. Jakin du Mairu likitsak Españaian sartu dirala erronka aundiak botarik, eta Egoi-aldetik Ipar alderaño guzti-guztiya menderatu bear dutela esanaz; eta ez datoz

(1) En tribus.—(2) Nombre euskaro del Arga.—(3) En la península.—(4) Soñadas conquistadas.—(5) Legionas.

bakarrik España menderatzera, baizik Gurutze Donetiyari gerra egitera. Goazen, bada, erritar maiteak, goazen, gure etsaigo chikiak azturik, Errodrigorekin batean, Mairuari erakustera, baldin gure lurra garaitu bear badu, baldin Gurutzea bertatik atera nai badu, gure gorputz illotzen gañetik igaro-bearko duala, zergatik odol guziya isuri arteraño gordezkeratuko ditugun Gurutzea eta Erria. ¡Bai! goazen guztiyok aritz baten itzalpeko anai onak bezela, eriotzagatik bildurtugabe; bada iltzen bagera Jaungoikoagatik eta Erriagatik, gure Eriotza izango da ondoren datozen gazteen biotzean, ausartzaren su biziya isiotuko duen chingarra. ¡Aurrerá, mutillak, aurrerá! Igaro ditzagun mendiak eta ibarrak, errekak eta ibaiyak, zelaiyak eta basoak, eta goazen, goazen ariñ, denborik galdu gabe Egoi-aldera. ¡Jaungoikoagatik eta Erriyagatik!...

Eta Bizkaiko bazter danetatik ingurutu zitzaizkan gizataldeak berarekin arturik, joan zan.

II.

Udazkena dá. Amboto tontorra odei beltz bildurgarriz estalirik dago. Ibarretara doi-doi iristen dira eguzkiyaren azken-errañuak, biotza penaturik daukan gizon baten begiratzea beziñ tristeak. Chori guztiyak eskutatu dira; joan dira danak Euskal-Erritik; basoak isill-isillik daude, beren biztanle egaldariyak¹ aldendu ziran ezkerroztik. Choriyak beziñ garbi eta ezti kantatzen zuten Euskal-Erriko dontzellak, tristeturik, ez dute beren kanta alayakin basoetako isiltasunak ematen duen naigabea kentzen. Ibaiyak, errekak eta iturriyak, geldi dijoaz; ez dira, len bezela, leyarrezko² arpa-soñulariyak; ¡éz!; beren mur-mur isilchoak negargarriyak dira. Artzayen ujujuak, erromeri-tuntunak, poz-alayuak ez dira aditzen. Dirudi dolgaindurik³ daudela gizonak eta emakumeak, zarrak eta gazteak; dolgaindurik daudela basoak eta charak, beretan dabilizan abereak eta salecheetan dauden ardiyak. Dana, dana triste dago Euskal-Erriyan. ¿Zér gertatzen da? ¿Zer ez bear, zér zorigaitz da gaur Euskaldunen biotzak samintzen dituana?... Jakin dute Andeka ill zala, eta berarekin joan ziran gizonetatik, banaka batzuek besterik ez dirala bizerik gelditu. Orregatik daude triste: orregatik daude negarrez, malkozko errekak isurtzeraño. Batzuei, ill zaitte aita; beste batzuei, senarra edo anaya; eta gorputzak beltzez estalirik dauzkate; baña ¿zér dá beren gorputzak estalzen dituzten soñekoen beltzetasuna, begira-

(1) Alados.—(2) Cristalino.—(3) Enlutados.

tzen badiogu biotza erdibitzen dioten penen beltzetasunari?... Istinga edo ur putzu chiki baten eta itsaso neurtegarriaren artean dagon banaita, dago beren artean. Pena oyen aunditasuna agertu lezakean izkuntzik munduan ez da. Berak azaltzeko, berak zein aundiak diran esateko, gizonaren mingaña baño zoliyagoa² bear da.

III.

¿Zer egiten du mendi gañeko zelaicho artan dagoen jende taldeak? ¿Zein da beren artean ageri dan gizon ura? Euskal-chistua dauka esku batean; adar bat gerriyan; koblakari bat da, eta kantatutzeroa dijoa. Goazen ara; urbildu gaitean eta aditu zayogun. Ona zér esaten duen:

«Andeka eta bereak ill dira Mairuen kontra gudan ari dirala, gurutzeari laztandurik. igartu da beren biziya, zuaitzetan dauden ostoen biziya udazkenean igartzen dan bezela. Baña udazkenean igartzen diran ostoen ordez, udaberrian osto mardulak jayotzen dira. Guk ere, bada, Euskaldunak, erakutsi zayogun Egoi Aldeko lur beroetako semeari, Euskal-Erriya irabazkidatuko badu, ea dala aski Andeka eta bere lagunak iltzea, zergatik, udaberriyan zuaitzak osto mardulez apaitzen diran eran, gure mendiyak mutill gazte bu-lardetsus jantziko diran. ¡Euskaldunak, gogor, gogor Mairuail

.....
 «Egoi-aldetik urbiltzen dira martizti izugarriyak, sua eta garra dariotela, gure sort-erria menderatu nayan. ¡Ez bildurtu, Euskaldunak!... Itsasoa-re, marrua ikaragarriyak egiñaz, eta, arkaitze-tan austean, odoyeteraño bere ur altisoituak³ jasoaz, urbiltzen da leorrera; baña iristen danean gauza guziyen jabe eta Jaun Jaungoikoak ezarri dion mugaraño, ubazterreko ondorrari umilki muñ egiñez, ostera itzulzen da. ¡Euskaldunak, gogor, gogor Mairuail

.....
 Au esatean koblakariyaren arpegiya alaitu zan, eta bere begiyak diz-diz egin zuten, azaldu nairik biotzean sentitzen zuen otsare⁴ biziya. Zirudien, udaberriko mardultasunez apaindurik zut-zutik alchatzen dari aritz goyanti⁵ bat. Eta modu onetan bestiruditurik⁶ jarraitu zuen:

«Euskal-Erriya sortu zan ezkeroztik, atserritar asko dira, gure mendiyak garaitzeko ustean etorri diranak. Asko dira, Aitoren se-

(1) Diferencia.—(2) Más expresiva.—(3) Nacaradas.—(4) Entusiasmo.—(5) Gigante.—(6) Transfigurado.

»meak uztarri betziztuaren¹ azpiyan ipiñi nai zituztenak. Baña
 »¿nork irichi zuen bere ustea? ¿Nork uztartu zituen Euskaldunak?
 »Iñork ez, iñork ez: or daude Hernioko tontorrek, or daude Errezill-
 »ko ibarrak, Octavianok zituen uste eroak utzera biurtu ziran sinis-
 »gaitzat; or daude ere Urbasa-ko arkaitzak, or Gorbeya gaindua;
 »beren gañean Godoen orporik senti etzutela esanaz. Etorri ziran;
 »baña Euskaldunak, azkora dardaturik² arkaitzetan bera amilduaz
 »jarraitu zietenean, iges egin zuten ariñ, otso goseduna atzetik du-
 »tenean ardiyak iges egiten duten moduan; urrundetu ziran danak,
 »Euskal-irrinza aditzean, eiz chakurren sanga entzutean erbiyak
 »urruntzen diran bezela. ¿Zer? ¿Uste zuten gizon arro aek, añ erraz
 »ateratzen zirala gure erriko aritzak? Etzekiten, nombait, aritz oen
 »sustraiyak, barruan, guztiz barruan daudela; etzekiten nonbait,
 »Euskal-mendiyak burnitsuak dirala. Bestela, ¿nóla ausartuko ziran
 »Aitorren erri lokabea,³ menderatzeko ustean etortzera?....

.....

»Gozoa, maitagarriya da kabiya choriarentzat; maiteago du bera,
 »naiz lasto igarrez egiña izan, errege batek ematen dion kayol urrez-
 »koa baño. ¿Zérgatik da ori? Choriyak lokabe izateko Jaunak egin
 »dituelako. Modu berean, nayago du Euskaldunak lokabea, nayago
 »du bere mendarleetako bizitz aztua, atzerritarrek eman lezayokean
 »urre uztarriyaren azpikoa baño. Orregatik norbaitek bere lokabea
 »kendu nai dionean sutzen zayo ausartza eta mendietan bera jaisten
 »da, udaberriyan elur desegiña amilten dan eran. ¿Nork geratuko du
 »goaitik⁴ irtenik, arrapatzen duen guziya ondaturik dijoan ujoldea?
 »¿Nork geldituko du gallurretatik amilka datorren aitz deslakaindua?⁵
 »Nork ipiñiko dio esiya ume lapurtuen billa marruaz dijoan legoi-
 »yari? Ala baña, errazago da ujolde bat garatzen, errazago da ume
 »lapurtuen billa dijoan legoiyari esiya ipintzen, bere lokabe maitea
 »kendu nai dioten atzerritarren kontra dijoan Euskaldunari zemni-
 »tzen⁶ baño. Ez da orduan ari zemnituko dion martizirik. Udazke-
 »neko aizeak, zuaitzetako ostu guztiyak botatzen dituen bezela, gi-
 »zon ark botatzen ditu aurrean jartzen zaizkan gerrari danak. Alpe-
 »rririk dira soiburniz⁷ jantziko; alperrik, dituzte arma beldurgarri-
 »yak artuko; soiburni eta arma guztiyak baño eragilleagoa da loka-
 »beak erri lokabeetan gartzen duen indarra. ¡Aurrera, bada, Euskal-
 »dunak, aurrera! Etorri ziran Erromatarrek, eta joan ziran; etorri
 »ziran Godoak, eta joan dira; badatoz Mairuak, baña oek ere, guzti-

(1) Infame.—(2) Blandiendo.—(3) Libertad, libre.—(4) De cauce.—(5) Des-
 gajado.—(6) Zemnitu, resistir.—(7) De coraza.

»yok alkaturik gordozeratzen baditugu Euskaldun egiazkoen mo-
 »dura, Jaungoikoa eta Erriya, joango dira ¡bai! joango dira; Eus-
 »kaldunak, gogor, gogor Mairuari.»

.....

Itz oek aditzean, Euskaldun ayen guztiyen artean, zartatu¹ zan
 Erriaren maitetasunaren otsarea, eta deadar egin zuten; Iaio, iaio....
 Eta mendien errayetako oyarzunak² esnaturik, eta itsaso irakiñak
 ubazterrean autsirik, erantzun zuten: Iaio, iaio, iaio....

Ala gertatu zan Andekak lendanez esan zuena. Ibai madarika-
 tuaren³ ertzean ill ziran gizonen eriotza, izan zan beren ondoren-
 goen biotzean kemen biziya isiotu zuen chingarra.

Ona emen Echekeo-jaunari aditu nion kondaira.

CARMELO DE ECHEGARAY.

LA MECINDAD EN LA REGION BASCO-NAVARRA.



(CONCLUSION.*)

Rota la unidad de la familia, despojado el padre de su soberania
 doméstica que debe ejercer hasta los últimos instantes de su vida los
 inalienables derechos que la misma naturaleza le ha conferido, ¿qué
 recurso le puede quedar ya, cuando agobiado por el peso de sus años,
 no puede subvenir á sus mas indispensables necesidades? Adónde pue-
 de acudir en el desamparo en que la ley le ha puesto si se han borra-
 do del corazon de sus hijos, hasta los últimos vestigios de la gratitud,
 reconocimiento y demás generosos sentimientos? Al auxilio de la men-
 dicidad puede demandar como último socorro de su afflictiva situacion
 cuanto necesita para no morir de inanicion y para contrarestar los

(1) Estallar.—(2) Los ecos.—(3) Ibai madarikatua.— El rio maldito.—Se alu-
 de al Guadalete.

(*) Véanse la página 501 y siguientes de este mismo tomo.